

EDABE MAGIKOA

Iñaki aldai

ialday@irakasle.net

ADINA

Lehen Hezkuntzan egiteko egokia

PERTSONAIK

. Kontalaria.	. Astoa	. Lapurra 1	. Laguntzailea
. Txakurra	. Baserritarra 1	. Lapurra 2	
. Oilarra	. Baserritarra 2	. Lapurra 3	
. Zezena	. Sorgina	. Epailea	

* Behar izanez gero Kontalariaren papera 6 pertsona ezberdinek egin dezakete.

Kontalaria: Baserri batean senar emazteak eta beraien animaliak bizi ziren. Izan ere, animalia nahiko xebreak zituzten.

Txakurra: Guau, guau, guau.

Oilarra: Kukurruku, kukurruku,

Zezena: Muuuu, muuuuu, muuuuu.

Astoa: Iaaaa, iaaaa, iaaaaaaa.

Txakurra: Guau, guau, guau, Ez dut batere atsegin ateratzen dudan hotsa.

Oilarra: Kukurruku, kukurruku. Nirea bai dela soinu itsusia

Zezena: Muuuu, muuuuu, muuuuu. Itsusia? Begira nirea zein ganoragabekoa den.

Txakurra: Gainera nire zaunkadekin, mundu guztia beldurtzen dut.

Zezena: Nirearekin, guztiak asper asper eginda bukatzen dute.

Oilarra: Zer kontatuko didazue. Denak gorroto naute, entzuten nautenean, ohetik altxatzeko ordua baita.

Astoa: Iaaaaa, iaaaa, iaataaaa. Ba niri, arrantza politak egiten ditudala iruditzen zait.

Txakurra: Hara bestea! ateratzen duzun iskanbila itsusiarekin eta pozik zaude. Astokilo galanta izan behar da gero.

Astoa: Hori naiz eta. Astoa.

(Sorgina sartzen da eszenatokira)

Sorgina: Zuen arazoaren jakinean nago, eta konponbide erreza duela esan behar dizuet.

Txakurra + zezena + oilarra: Konponbide erreza?

Sorgina: Hemendik aurrera, nahi duzuen soinua ateratzeko, edabe magiko hau baino ez duzue edan behar.

T + Z + O: Ekarri edabea, ekarri edabea!

Sorgina: Kontuz! Edabe magikoa edanez gero, ez duzue berriro zuen hotsa aterako.

Txakurra: Ekarri edabea. Nik katuaren ahotsa nahi dut. Miau luze eta goxoak.

Zezena: Nik berriz, txoritxoek kantu dotoreak entzun nahi ditut. Txioka egin nahi dut.

Oilarra. Hontzaren uluak dira ederrenak. Uluak egiten ikasi nahi dut.

(Edabea edan egiten dute).

Txakurra: Miauuuuu, miauuu, miauuuuu. Ezin dut sinistu!

Zezena: Pio, pio, pio. Bai soinu polita.

Oilarra: Uuuuuh, uuuuuuh, uuuuuuh. Hau poza!

Astoa: Iaaaaa, iaaaa, iaaaaaaa. Niri barregarri zaudetela iruditzen zait.

Txakurra: Miauuuu, miauuu. Zu bai barregarri iskanbila horrekin.

Kontalaria: 3 animaliak egun osoan pozik jardun zuten beraien ahots berriekin. Baina begira zer gertatu zen baserrian gauean.

(Gaua da eta baserrian guztiak lotan daude. Bi lapur sartzen dira)

Lapurra 1: Ederki, guztiak lotan daude.

Lapurra 2: Ez baditugu esnatzen baserri guztia hustuko dugu.

Lapurra 3: Bai, isilik ibili behar gara dena lapurtzeko

Lapurra 1: Begira, hor dago diruaren kutxa. Sartu poltsora.

Lapurra 2: Hemen harribitxiak! Dena barrura.

(bapaatean txakurra esnatzen da).

Txakurra: Baina, baina... lapurrak daude gure baserrian. Oraintxe bertan beldurtuko ditut.

Lapurra 1: Akabo! Txakurrak ikusi gaitu.

Lapurra 2: Orain guztiak esnatuko ditu .

Lapurra 3: Eta agur gure lapurketa.

Txakurra: Miauuu, miauuuuuu, miauu.

Lapurra 1: Zer demontre egiten du?

Txakurra: Miauuu, miauuuuuu, miauu.

Lapurra 2: Ja, ja, ja. Zaunkarik egiten ez dakien txakurra.

Lapurra 1: Segi lasai lapaurtzen. Honek ez du inor esnatuko.

Lapurra 2: *(Katuei egiten zaien zarata egiten dio)* Bzzzz, Bzzzzzz nahi ahal duzu sagutxu bat afaltzeko? Ja, ja ja.

Kontalaria: Lapurrak guztiaz jabetu ondoren gau erdian alde egin zuten. Egunsentia heldu zenean oilarrari takatu zitzaion txanda.

Oilarra: Oraintxe eguzkia ateratzen ari da. Guztiak esnatu eta altxatzeko ordua da.

Uuuuuuuhh, uuuuuuuuh. Ez ahal da inor esnatzen?

Uuuuuuuh, uuuh.

(Baserritarrak oraindik ohean erdi lo)

Baserritarra 1: Maritxu, jaikitzeke ordua ahal da?

Baserritarra 2: Ez Joxe Mari. Ez duzu entzuten Hontza uluka.
Oraindik gaua da.

(Musika piska bat entzuten da, eta denbora gutxira berriro...)

Oilarra: Uuuuuuh, uuuuh, uuuuh.

Baserrita 1: Hontza berriro ere Maritxu.

Baserrita 2: Jarraitu dezagun lo egiten orduan, Joxe Mari.

(Musika piska bat entzuten da, eta denbora gutxira berriro...)

Oilarra: Uuuuuuh, uuuuh, uuuuh.

Baserrita 1: Bai gau luzea Maritxu.

Baserrita 2: Tira, tira, aprobetxatu eta egin lo Joxe Mari.

(Musika piska bat entzuten da, eta denbora gutxira berriro...)

Oilarra: Uuuuuuh, uuuuh, uuuuh.

Baserrita 1: Maritxu, jadanik ezin dut lo gehiagorik egin. Altxatu
egingo naiz

Baserrita 2: Tira, zurekin jaikiko naiz.

Baserrita 1: Baina, baina... egun argia dago.

Baserrita 2: Hau gauza arraroa. Hontza egunez uluka.

Baserrita 1: Maritxu, begira zer ordu den!

Baserrita 2: Arratsaldeko 3ak???

Baserrita 1: Eta zergaitik demontre ez gaitu oilarrak esnatu?

(Oilarrarengana hurbiltzen dira)

Oilarra: Uuuuuuh, uuuuh, uuuuh.

Baserrita 1: Nik entzuten dudana entzun duzu Maritxu?

Baserrita 2: Kukurrukurik egiten ez dakien oilarra!

Baserrita 1: Alde gure baserritik!

Baserrita 2: Eta ez itzuli kukurruku egiten ikasi arte.

(Triste, oilarra eszenatokitik ateratzen da. Ondoren Baserritarra 1 lapurtu egin dietela ohartzen da).

Baserrita 1: Ai ene Maritxu.

Baserrita 2: Zer duzu oraingoan Joxe Mari?

Baserrita 1: Lapurrak egon dira baserrian!

Baserrita 2: lapurrak???

Baserrita 1: Gauean diru guztia eta harribitxiak lapurtu dizkigute!

Baserrita 2: Gauean? Eta zergatik ez dugu txakurraren zaunkarik entzun?

Baserrita 1: *(txakurrari deitzen dio)* "Laika"! Etorri hona! Zergaitik ez dituzu lapurrak beldurtu eta gu esnatu gauean?

Txakurra: Miauuu, miauuuuu, miauu.

Baserrita 1: Nik entzuten dudana entzun duzu Maritxu?

Baserrita 2: Zaunkarik egiten ez dakien txakurra!

Baserrita 1: Alde gure baserritik!

Baserrita 2: Eta ez itzuli zaunka egiten ikasi arte.

Kontalaria: Egun haietan herriko zezen hoberenaren aukeraketa egiten ari ziren. Epailea eta bere laguntzailea baserriz baserri joaten ziren zezen guztiak aztertzen irabazlea izendatzeko asmoarekin.

Epailea: Badakizue herriko zezen hoberenaren txapelketa egiten ari garela.

Baserrita 1: Bai epaile anderea. Zezen mundiala daukagu.

Epailea: Tira, tira, ikus dezagun. Herriko beste zezen guztiak aztertu ditugu eta hau bakarrik falta zaigu.

Baserrita 2: "Beltz", Etorri hona.

Epailea: Itxura ederra dauka behinik behin.

Baserrita 1: Egon ziur ez duzula sekula horrelako zezenik ikusi.

Epailea: Iñaxio, has gaitezen aztertzen.

(Laguntzaileak, epaileak esaten dituen atalak ukituz, zezena aztertzen doa. Epaileak koaderno baten apuntatzen du laguntzaileak esandakoa)

Epailea: Izterrak?

Laguntzailea: Arinak eta gihartsuak.

Epailea: Gorputza?

Laguntzailea: Sendoa eta indartsua.

Epailea: Hortzak?

Laguntzailea: Primerakoak.

Epailea: Adarrak

Laguntzailea: Zorrotz zorrotzak.

Epailea: Ikus dezagun orain nola egiten duen korrika eta kapotera nola sartzen den. Iñaxio Atera toreatzailearen tresnak.

(Buruan toreatzaileen sonbreroa jarri eta kapotea ateratzen du. Toretzen hasten da.)

Laguntzailea: Eeeh Toro! Eeeh toro!
Oleeee, oleee eta oleee.

Epailea: Zure iritzia?

Laguntzailea: Bikaina!

Epailea: Ikusten dudanez, zure zezenak irabaziko du txapelketa.

Baserrita 1: Esan dizut ez dagoela horrelako zezenik.

Laguntzailea: Epaile anderea, azken proba falta zaigu.

Epailea: Egia da. Entzun dezagun nola egiten duen marru.

(Zezena isilik gelditzen da.)

Laguntzailea: Egin ezazu marru behingoz.

(Zezenak isilik jarraitzen du).

Baserrita 1: Egiteko Marru!

Zezena: Pio, pio, pio, pio, pio.

(Denak zur eta lur gelditzen dira)

Laguntzailea: Ja, ja, ja. Arrazoia zenuen ez dugu sekula horrelako zezenik ikusi.

Epailea: Adar jotzea da hau! Onartu ezina. Zezen hau deskalifikatua gelditzen da. Goazen hemendik.

Baserrita 1: Nik entzuten dudana entzun duzu Maritxu?

Baserrita 2: Muurik egiten ez dakien zezena!

Baserrita 1: Alde gure baserritik!

Baserrita 2: Eta ez itzuli marru egiten ikasi arte.

(Guztiak eszenatokitik atera eta hiru animaliak sartzen dira)

Txakurra: Miau, miau. Sorginari, beste edabe magiko bat eskatu behar diogu, gure ahotsa berreskuratseko.

Zezena: Pio, pio, pio. Ez digu emango.

Oilarra: Uuuuh uuuuh. Badakit zer egingo dugun edabe berria emateko.

Kontalaria: Hurrengo gauean, hiru animaliak sorginaren etxera hurbildu eta ataea jo zuten.

Txakurra: Miauu, miauu. Emaiguzu gure ahotsa berreskuratzen duen edabe magikoa.

Sorgina: Ezta pentsatu ere. Ondo barregarri zaudete horrela. Orain lo egitera noa.

Zezena: Edabe magiko ez diguzun ematen bitartean, zarataka egongo gara gau osoan, eta ezingo duzu lorik egin.

Sorgina: Joan zaitetze pikutara! (*lotara doa*)

Oilarra: has gaitezen.

Txakurra: Miauuuuu, miauuu, miauuuuu.

Zezena: Pio, pio, pio.

Oilarra: Uuuuuh, uuuuuuh, uuuuuuh

Txakurra: Miauuuuu, miauuu, miauuuuu.

Zezena: Pio, pio, pio.

Oilarra: Uuuuuh, uuuuuuh, uuuuuuh.

Txakurra: Soinu hauekin ez dugu inor esnatzerik lortuko.

Zezena: Itxaron. Ideia bat daukat. Astoaaa!! Etorri mesedez!

(Astoari deitu eta hau eszenara sartzen da)

Zezena: Astoa, lagunduko ahal diguzu gure ahotsa berreskuratzen?

Astoa: Orain nire laguntza behar duzue?

Zezena: Mesedez, egizu arrantza duzun indar guztiarekin.

Astoa: "Astakilo kirten" honen iskanbila zaratatsuak behar dituzue? Hau da marka.

Txakurra + Zezena + Oilarra: Mesedez.

Astoa. Ez dakit merezi duzuen baina tira. Iaaaaa, iaaaa, iaaaaaaaa, iaaaa, iaaaaaaaa.

Sorgina: Asto madarikatua! Isildu ari!

Astoa: Ez nire lagunei ahotsa bueltatu arte. Iaaaaa, iaaaa, iaaaaaaaa, iaaaa, iaaaaaaaa.

Sorgina: Horrela ez dago lo egiterik!

Astoa. Iaaaaa, iaaaa, iaaaaaaaa, iaaaa, iaaaaaaaa.

Sorgina: Nahikoa da! Nahikoa da! Tori edabe magiko berria, baina faborez, isil dadila asto nazkante hori.

(Animali guztiak edabea edaten dute).

Txakurra: Guau, guau, guau. Hauek zaunka ederrak. Ez da lapur gehiago baserrian sartuko

Oilarra: Kukurruku, kukurruku. Hau poza. Baserritarrak esnatu ahal izango ditut berriro ere.

Zezena: Muuuu, muuuuu, muuuuu. Hurrengo urtean neu izango naiz zezen txapelduna.

Astoa: Iaaaaa, iaaaa, iaaaaaaa. Goazen denok gure etxera.

Kontalaria: Animali guztiak baserrira bueltatu ziren, eta honela, norberaren izaera gauzarik baliotsuena zela konturatu ziren.